



## 23. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 23. eguna. 2020ko apirilaren 7a, astelehena.

### Hilaren 6ko, astelehenako, Kudeaketa / Jarduerak

#### BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Errepikakorrak garela badirudi ere, Udalak egiten dituen zenbait baieztapen errealitatearekin bat ez datozela mantentzen dugu berriro ere. Hala ez izatea nahiko genuke, baina ezin. Eta hau plazaratzeko betebeharra dugu, kaltetutako pertsonak beren burua nabarmentzeko aukera gutxi dituen kolektibo bateko kide baitira, eta, praktikan, baztertuak baitira.

Beste behin esaten dugu. **Jendea gaitutako baliabideetatik kanpo uzten jarraitzen dute.** Baliabideak ez dira nahikoak, eta itxaron-zerrendan jartzen dituzte. Eta itxaronaldi horretan, atzo gertatu zen bezala, atxilotu egin ditzakete, Ertzaintzak kasu honetan. Aipatutako pertsona, zubi baten azpian bizi da eta egunero SMUSera joaten da, ea jadanik lekua duen ikusteko eta jateko bila eta nahiz eta SMUSen itxaron-zerrendan dagoela esan zien, atxilotu egin zuten, kalean hainbat aldiz ikusi zutelako. Eta Ertzaintzak, ebidentzia guztien aurka, gaitutako baliabideetan lekua soberan dagoela argudiatzen du. Adibide bat besterik ez da. Beste batzuek zorabiatuta amaitzen dute, baliabide batetik bestera bidalita, berriz ere kalean amaitzeko. Eta, atzo ere, Udaltzaingoak salaketa jarri zion beste gazte bati, mugikorra kargatzeko gestioetan denbora gehiegi ibili zela iritzita.

*Atanon* takilak jartzea bezain erraza den zerbaite, ezetsia izan da, nahiz eta beren intimitatea ez errespetatzeaz gain hau gatazka iturri dela esan. Hainbat istiluk egoera hau izan dute sorburu.

**Udalak** elikagaiak hornitzeari dagokionez, badugu berririk. Eta ez dira positiboak. **Elikagaietarako aurrekontu-partidarik gaituko ez duela jakinarazi digu.** Beraz, Harrera Sarearen esku-hartzeak handia izaten jarraitu beharko du. Aste honetan, astean behin eta aldi honetarako neurrian 15 familiari (52 pertsona) eta beste 42 pertsona indibiduali **elikagaiak eman dizkiegu** Saretik, **guztira 94 pertsona direlarik.** Gainera, egunero hornitzen ditugu, dituzten ezaugarriengatik, beste 65 pertsona. Eta teorian udalak artatzen dituen batzuek jatekorik jasotzen ez duten egunak ere badaude eta Aste Santuko egunetan lanik egiten ez dutela ere esan diete. Egun horietan ez omen da jaten, antza. Gogorra da hau esatea, baina are gogorragoa da hau pairatzea.

Gestioak egiten jarraitzen dugu, beren herrietan baliabiderik lortzen ez duten **beste herri batzuetako (Erreterria, Billabona) familia** batzuek arduratzen jarraitu behar ez izateko.

Ez dugu harreman zuzenik, beraz, ezin dugu baieztatuz, baina egoera honek zuzenean eragiten dien **sexu-langileen arreta faltari** buruz iristen zaizkigun albisteek kezkatzen gaituzte. Beti ikusezin eta estigmatizatuak.

**KOMUNIKAZIOA.** 22. Buletina sareetan zabaldu da eta komunikabideei helarazi zaie.

#### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

**Ekarpen ekonomiko solidarioari** dagokionean, **145 pertsonen** emandako diru-sarrerak 9.458 € izan dira guztira.

Eguneroko **Gandarias** eta **Pandora**-ren elikagai ekarpenei Karlosen Hanburgesa Beganoak gehitu zaizkie gaur.



## 23. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

***Biharamunerako Pilulak.*** Ba al dakigu nortzuk diren etxerik ez duten pertsona horiek? Zein behar dituzten? Zein eskubide? Zer ilusio? Zer trebetasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Galdera horiei zuzenduko dizkiegu ***Biharamuneko Pilulak.***

## 12. PILULA

### GIZARTE-BALIABIDEAK

Ez da arraroa kekek entzutea pertsona migratzaileek pobrezia-egoerei aurre egiteko oinarrizko laguntzak jaso ditzaketelako. Gehienetan buloak edo betiko leloak besterik ez dira, atzean inongo arrazoiketa eta logikarik gabeak. Baina hauetako batzuei arreta jarriko diegu.

***Pobrezia.*** Oinarrizko laguntzak jasotzen dituzten atzerritarren proportzio handia dago. Horrek erakusten du, oro har, bertako biztanleak baino dezente pobreagoak direla; haien gizarte-egoera nabarmen prekarioagoa eta okerragoa dela. Pobreziari buruzko azterlan guztiek erakusten dute gizarte-prestazioak funtsezko elementuak izan direla hau murrizteko eta biztanleriaren zati baten bazterketa, bai bertakoa eta baita etorkina ere, prebenitzeko edo gutxitzeko. EAEn dagoen gizarte-kohesio nabarmenari eustea eta atzerriko langileen zati bat erabat ez desintegratzea ahalbidetu dute. Zentzugabea da hau zalantzan jartzea.

*Ez dute balio integratzeko. **Integrazioa lanaren bidez lortzen da.*** Argudio horrek ez du kontuan hartzen lan prekarietatea. Ezta Lanbideren bidez, funtsean, lan-eskaintza prekarioak kudeatzen direla, horiek baitira prestazioak jasotzea kronifikatzearen oinarria. Krisi-egoeretan, are zentzu gutxiago du lana jotzea krisi honek gogorren kolpatu duen biztanleriaren parte gizarteratzeko tresna edo bitarteko bakartzat.

***Dei efektua dute.*** EAEk denbora darama langabezia-tasa txikiena, batez besteko soldata handienak eta gizarte-prestazioen sistema konparatibo onena duen Estatu eremua izaten. Eta honek ez du aldatu Estatu mailan biztanle atzerritar finkatuen kopurua batezbestekoa baino baxuagoa izatea. Migrazio-helmugak aukeratzeko hainbat faktorek dute eragina, baina nagusia lanaren bidez diru sarrerak lortzea izan ohi da.

Kontuan hartuta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona horietako parte bat gazteak direla eta lan-munduan txoko bat aurkitzeko irrikan daudela, logikoa da hori erraztu eta gure gizartea eraikitzeko ekarpen osoa egitea ahalbidetzea. **Hori eragozten duen eta** Estatuaren eskumenekoa den **atzerritartasunari buruzko legeriarekin amaitzea**, eta autonomiaren eskumena diren beharrezko prestakuntza eta enplegarritasun baliabideak abiaraztea **oinarrizko betekizunak dira.**

### **Gizarte-baliabideak, pobreziari aurre egiteko oinarrizko arma.**

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com) 675 71 53 15

**Facebook:** @HiritarronHarreraSarea      **Instagram:** @RedAcogidaCiudadana

**Dohaintzak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**